

Bisitari bereziekin ospatu zuten Orioko ikastolako ikasleek Liburuaren Eguna

ORIO. Eskualdean ere gogoz ospatu zen atzokoan Liburuaren Eguna eta liburutegi eta kultur etxeek ekintza ezberdinak eskaintzeaz gain, ikastetxeetan irakurtzeko eta solasean aritzeko tartea hartu zuten. Honela, besteak beste, Orioko Herri Ikastolan, haurrek bisita bereziak jaso zituzten eta gustura aritu ziren ipuinak entzuten. Javiera Eizagirre ikastolako amona, zentrora joan eta ikastolako arduradunen esanetan, 'izugarrizko mimoarekin eta emozio handia jarritz' irakurri zien Haur Hezkuntzako bost urteko gelako ikasleei Sorgin txoraa ipuina.

Ikasleek esker onez amonari marrazki bilduma bat oparitu zioten eta ondoren, abesti polit bat kantatu zioten. Javierak pozez hartu zituen marrazkiak eta gustura asko entzun zituen abestiak ere. Belaunaldi ezberdinen arteko elkartruke ederra egin zuten honela atzokoan.

Bestalde, Jesus Mari Olaizola Txiliku idazle zarauztarra Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleekin aritu zen bere ipuinez hizketan. Kikik Koko nahi du, Axa Mixa Zilarra, Mixi marrau... Txilikuren hainbat obra ezagutzen dituzte ikasleek eta hauek idazteko teknikez, ideiez eta burutazioz aritu ziren idazlearekin. Haur Hezkun-tzako lau urteko ikasleak, berriz, gelaz gela ibili ziren ipuinak kontatzen beste ikasleei.